

Hezkuntza Sailak maiatzaren 20an **Zabaleko eta Mendiko ikastetxeen fusioa** egiteko asmoa adierazi zuen. Horren ondorioz Zabaleko ikastetxea desagertuko litzateke etorkizun labur batean Amurrioko Hezkuntza-eskaintza publikoan.

Horren aurrean gure eskualdeko ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeok honakoa adierazi nahi dugu:

1.- Lehenik eta behin, **gure babes osoa Zabaleko ikastetxeko eskola-komunitate osoari.**

2.- Zabaleko Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua irakasleekin, ikasleekin, familiekin eta hezkuntza-komunitateko beste eragileekin konprometituta dago. Amurrio herria ezagutzen dutenek badakite 62 urteko ibilbidea duen eskola hau **auzoaren ardatza** dela. Bertan elkarbizitza, euskara, inklusioa, aniztasuna, gure kultura, berdintasuna... lantzen dira auzokideekin batera. Auzo bizia izan da eta bada San Jose, sorreratik eta gaur egun ere, **etorri berri askoren harrera gune.**

3.- Kalitateko hezkuntza publikoa babestu nahi dugu, hurbilekoa, auzoan errotua, herritar guztiei aukera berdintasuna ematen diena, hezkuntza-komunitate osoa lotzen duena. Zabaleko horixe ari da egiten, **eskola bizia da eta hamaika proiektutan** (Eskola Txikiak, Eleaniztasuna, agenda 2030, Amurrioko EPArekin elkarlanean...) **murgilduta** dago.

4.- Gure eskualdearen egoera ez da erraza, zenbait enpresa itxi, lekualdatu edo langile asko kaleratu (Valvospain, Tubacex, Lidl...). **Aiaraldean inbertsioak egiteko garaia da**, ez zerbitzu publikoak murrizteko.

5.- Zabaleko desagertaraziz gero, Amurrioren hezkuntza publikoaren eskaintza Lehen hezkuntzan ikastetxe bakarrera mugatuko litzateke. Ikastetxe publikoetako Zuzendaritza taldeok argi dugu **hezkuntza publikoa sustatzeko, indartzeko garaia** dela eta inola ez, oinarritzko zerbitzu batean (hezkuntza) murrizketak egiteko.

6.- **Zabaleko ikastetxeak zuzendaritza-proiektua aurkeztu du datozen lau urteotarako, konpromezua, lidergoa eta inplikazioa erakutsiz eskola-komunitatearekin.**

7.-Prozesu honek izan duen inprobisazio itxura, **kaltegarria da Euskal eskola Publikoaren irudirako.**

8.- **Hezkuntza Sailari fusio hau bertan behera uzteko eskatzen diogu eta ikastetxe publikoetan (Zabalekon, Mendikon eta gainerakoetan) behar diren baliabideak jar ditzala.**

Arteko Gure Ama HLHI

Etxaurren Ikastola HLHI

Okondo HH

Zaraobe Institutua BHI

Fabian Legorburu HLHI

EPA Audio-Amurrio

Urduña Herri Ikastetxea

IES Audio BHI

Mendiko Eskola HLHI

Latorro HLHI

Lamuza HLHI

Orozko Harana Eskola

Aiaraldean, 2021eko maiatzaren 28an